

Emakume bakegileak

Emakumeek
bakea egiten
dute

Ikerketa parte-hartzailea,
Nafarroan motibazio politikoko
indarkeriaren aurrean gizarte
mugimenduak osatu zituzten
emakumei buruzkoa



Eskerrak eman nahi dizkiegu beren kontakizunen eta testigantzen bidez azterlan honetan eskuzabaltasunez parte hartu duten emakume eta gizon guztiei eta lan eskerga egin duten guztiei, fruituak zor baitizkiegu.

2023ko abendua

Ikerketa-taldea:

Maialen Lizarralde Altuna (Baketik)

Maider Maraña Saavedra (Baketik)

Ainhoa Azkarate Iriondo (Baketik)

Jone Otero Martínez (Borborka)

Memoriaren eta Bizikidetzaren
Zuzendaritza Nagusiak diruz lagundua



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

AURKIBIDEA

Hitzaurrea	4
Sarrera	6
Esparru teorikoa	8
Emakumeak eta bakea: bat-egite naturala?	8
Borondatezko lanetik ekintza politikora	9
Bakearen konplexutasuna	11
Bakerako Mugimenduak eta Asoziazionismoa Nafarroan	12
Azterlanaren helburuak eta metodologia	16
Analisia	18
Bakea	19
Nork osatzen zituen bakearen aldeko mugimenduak Nafarroan?	21
Iraganari begira	24
Emakume bakezalea? Bai, noski	25
Etorkizuna gogoan	30
Ondorioak	32
Bibliografia	36

HITZAURREA

Giza eskubideen urraketen arloari loturik memoria berreskuratzeko egiten den lanak funtsezko zenbait helburu izan ditu eta ditu orain ere: biktimen ahotsa berreskuratzea, haien esperientziak ikusaraztea ahaztuta geldirik daitezkeen, eta, horrela, haien testigantza ondare gisa uztea, eredugarri izan dadin eta bakearen kultura sor dezan. Horri esker, biktima guztiek egia, justizia eta erreparazioa izateko duten eskubidea bermatzea bilatzen den aldi berean, batetik, sufritu dutena jartzen da agerian, haien oinazea, eta, bestetik, gertatu diren giza eskubideen urraketen kontakizuna eskaintzen zaie belaunaldi berriei, eta nabarmentzen da, bestalde, ezinbestekoa dela urraketa horiek beste inoiz ez gertatzea.

Lehen esandakoa baitezpadakoa izateari utzi gabe, hori baizik egingen ez bagenu, bakearen kulturarentzako ekarpena motz geldituko litzateke, funtsezko alderdi batzuk faltako lituzke. Prozesu eta gatazka suntsitzaile ororen ondorioz, bizitzaren edozein esparrutan, argi batzuk ere ikusten ahal ditugu. Edozein bizi-prozesutan, errealitateak argiak eta itzalak ditu. Oinaze- eta sufrimendu-prozesuetan, zorionez, dena ez da itzala. Argiak ere badaude. Are gehiago, edozein prozesuri aurre egiteko esperantzarako gakoetako bat itzalen atzean zer argi ezkututzen diren oihartzua da, argi horietaz jabetzea eta haiek indartzea. Gustatzen zait esatea gure errealitateetan argi-itzalak daudela. Are gehiago, argiak daudelako daude itzalak. Bestela, dena iluntasuna izanen litzateke.

Azken hamarkadetan gure herrian bizi izan dugun motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan, min lazgarria bizi izan du jende askok: indarkeriaren ondorio anitz ezin dira konpondu eta pertsona askoren orbainek betiko iraunen dute. Baina, horrekin batera, elkartasuna bizirik izan da unerik gogorrenetan, enpatia agertu da, jende askok eutsi dio bakearen banderari eta pankartari, giza eskubideen defentsari. Jende asko zubiak sortzen eta lubakiak kentzen saiatu zen. Gizon-emakume frankok sekulako eginahala egin zuten posible izan zedin indarkeriarik gabeko irtenbide bat elkarrizketan oinarritua. Batzuek esan dute Euskal Herriko gizartea gaixorik zegoela. Ez dakit egia den, baina badakit herritarren artean indargune handiak ere bazeudela, jende askok bere lehentasunen artean jartzen zuela bidegabekeriaren astinduak jasaten zituenaren ondoan egotea. Pertsona askok egin zuten amets, eta lan, bake-horizonte bat sortzeko.

Hau da, hortaz, funtsezko galderetako bat: zer baliok eta ekimenek lagundu dute politika eta proiektu legítimoak eraikitzeko indarkeria deslegitimatzeko? Zer ikasi dugu bide honetan? Zer jarraitu behar dugu bultzatzen egiazko bakearen kultura sortzeko?

Testuinguru horretan, Baketik-eko kideoi garrantzitsua iruditzen zaigu errealitatea antzaldaten lagundu zuten ekimenak aztertzea hainbat ikuspuntutatik. Horregatik, bide honetan guztian erabakigarriak izan ziren zenbait ekimenetako militanteengan arretan jartzea da gure proposamena. Nor aritu ziren bakearen aldeko mugimenduetan? Zein zen haien motibazioa? Zer lortu zuten? Bizi izandakoak zer arrasto utzi du pertsona haiengan?

Lan honetan, funtsean, Nafarroan bi mugimendutan lan egin zuten pertsonen ematen zaie ahotsa: Elkarri-n eta Bakearen Aldeko Koordinakundearen aritu zirenei. Eta, bereziki, mugimendu horietan parte hartu zuten emakumeei, bizi izandako guztiaren irakurketa egin dezaten. Eta beren lanaren eta emakumeek beren mugimenduetan izan zuten zereginaren azterketa kritikoa egin dezaten ere bai; izan ere, genero-ikuspegia ezinbestekoa da gauza positibo guztiak bereizteko, eta baita negatiboak ere, denetarik egon baitzen.

Ez dugu zalantzarik. Bakearen eta justiziaren aldeko lanak merezi izan zuen, eta hala izanen da hemendik aurrera ere, fruituak ikusi ala ez. Badakigu bakea justiziaren fruitua dela, baina, era berean, ziur gaude justizia bake-bidez eraikitzen dela. Bakea da bidea. Bibliako salmo batek dioen bezala, "justiziak eta bakeak musu ematen diote elkarri". Hori da gure apustua. Hori sinetsirik erein nahi dugu bizikidetzatza.

Fernando Rey
Baketik-eko patronatuaren lehendakaria

SARRERA

Baketik-ek egindako azterlan honek Nafarroako Gobernuaren eta haren Memoriaren eta Bizikidetzaren Zuzendaritza Nagusiaren babesaren babesa izan du, eta motibazio politikoko indarkeriaren eta terrorismoaren hamarkadetan zehar Nafarroako gizarte zibilean **bakearen alde lan egin zuten emakumeen rola ikusarazi eta haien inguruko ezagutza sustatzeko premiari erantzun nahi dio.**

Sarritan uste izan den arren Nafarroako gizartea isildu egin zela giza eskubideen urraketen aurrean, eta ez zuela haien aurrean jardun, izan ziren maila desberdinetan egin ziren hainbat ekimen. Batzuetan, protagonista pertsona anonimoak ziren, eta, beste batzuetan, talde sozial edo politikoren bateko kideak. Haietako asko emakumeak izan ziren, eta **azterlana honako hipotesitik abiatzen da: haien lana ez dela aski ikusia, baloratua eta aitortua izan** bigarren maila batean uzten dituzten genero-rolak direla-eta.

Azterlan hau, beraz, **gogo zabalago baten baitan kokatzen da, hau da, indarkeriaren aurrean beren gaitzespena adierazi, eta, elkarbizitzaren, elkarrizketaren eta bakearen aldeko bideen alde egin zuten ehunka lagun (emakume zein gizon) lana ezagutzea eta aitortzea.** Eta, pertsona horien guztien artean, azterlan honek, bereziki, Nafarroako hainbat udalerritako jarduera, talde, elkarte eta mugimenduetan gutxi gora behera modu jarraituan parte hartu zuten emakumeak identifikatzearen alde egin du.

Izan ere, **emakume horiek modu anonimoan egin dute lan sarritan,** eta haien esperientziak ez dira ez sistematizatu, ez jasoak geratu. Proposamen honek bakearen eta giza eskubideen aldeko ekimenetan **aktiboki parte hartu zuten emakumeei eman nahi die ahotsa.** Horretarako, haien parte-hartzearen gakoak eta hamarkada luze bat geroago aipatutako ekimen horietan izan duten eragina identifikatzen dituzten elkarrizketak gauzatu dira.

Gisa horretan, emakume horien memoria berreskuratu, eta haien bizipenak nolakoak izan ziren ulertu nahi da, bai eta bizipen horiek haiengan izan zuten eragina ere. Garrantzitsua iruditzen zaigu jakitea haientzat zer izan zen testuinguru hartan bake-eragile izatea, zer eman zuten, eta zer jaso zuten bueltan.

Memoria hori berreskuratzeko, Baketik-ek prozesu desberdinetan parte hartu zuten emakumeen bizipenak berreskuratu ditu. Elkarrin, Lokarrin, Bakearen Aldeko Koordinakundean (Gesto por la Paz) eta bakearen eta giza eskubideen aldeko beste mugimendu batzuetan parte hartu zuten ehunka pertsona, horietako asko, emakumeak.

Elkarrizketa erdi-egituratuen eta hogeit bat laguneko eztabaidataldeen bidez, bakearen aldeko mugimenduetan parte-hartzeari buruzko testigantzak eta gogoetak jaso dira, bai eta beren motibazioak, ikasitakoak eta zailtasunak, emakume gisa izandako bizipenak, orainean kokatuta duten ikuspuntua, eta beren etorkizunera begirako ekarpena. Prozesu horren emaitza da argitalpen hau, bideratzaile gisa parte hartu dugun eta elkarrizketak egin ditugunon begietatik egina betiere. Gisa horretan, pertsona horien guztien ahotsa gure taldeak erantsi ahal izan duen begirada edo hurbiltzeekin batera jaso da¹.

Garai zail baten memoria berreskuratzeko bidean, esperientzia hori guztia beste pauso bat baino ez da erakunde eta pertsona askok garatzen dituzten ekimen ugarien artean. Sinetsita gaude ezinbestekoa dela gune gehiago sortzea garai horiek elkarrekin oroitzeko eta izan zirenari zein denbora igaro ahala nola ulertzen ditugun hausnartzeko,. Gure eskerrik beroena bakea eta bizikidetzaren defendatu zituzten pertsona horiei guztiei.

Baketik, Iruñea, 2023ko abendua

¹ Horrela, azterlan honetan jasotako hitzek ez dituzte nahitaez bertan parte hartu dutenen iritzirik ordezkatzen, ez eta aipatutako elkarteek edo haiek babesten dituzten erakundeek ere.

ESPARRU TEORIKOA

Emakumeak eta bakea: bat-egite naturala?

Friedrich Engelsek, 1884an, honako idatzi zuen Familiaren, jabego pribatuaren eta Estatuaren jatorria liburuan:

Gizona gerran borrokatzen da, ehizara eta arrantzara doa, eta horretarako beharrezko zaizkion elikagaiak eta erremintak lortzen ditu. Emakumeak etxea gobernatzen du, jakiak eta arropak prestatzen ditu, kozinatu egiten du, ehundu, eta josi. Bakoitza bere lanetan trebea da: gizona basoan, emakumea etxean. Bakoitza egiten eta erabiltzen dituen tresnen jabe da [...]. Batera egiten edo erabiltzen dutena jabetza komunekoa da: etxea, lorategia, txalupa.

XIX. mendean, Engelsek egindako diskurtsoen gisakoek emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren ideia indartu baino ez zuten egiten, eta desberdinkeriaz beteriko sistema bat habetzen zuten. Gerda Lerner historialari feministak azaltzen duen bezala, emakume askok "gizonak baino altruistagotzat (...) hartzen zuten beren burua, beren ama-senagatik". Izan ere, emakume askok uste zuten "eginkizun berezi bat zutela: gizartea gizonen sortutako suntsipenetik, lehiakortasunetik eta indarkeriatik salbatzea"².

Denbora igaro den arren, oraindik ere badu nolabaiteko indarra sinesmen honek: emakumeak, berez, bakea egiten duela, eta, gizonak, indarkeria. Ez da azterlan honen kasua, gizonen eta emakumeen gaitasunak parekatu eta berdintzen baititu, eta, ondorioz, ulertzen baitu gizonen zein emakumeek dutela bakea eraikitzeko gaitasuna, bi-biek (eta, beraz, indarkeria ere bai). Hala ere, gizonen eta emakumeen jasotzen duten sozializazio desberdinak batzuek eta besteek rol desberdinak hartzea ekartzen du, bai eta botere harreman asimetrikoak izatea ere.

Horrela, pairamenean, besteentzat buru-belarri aritzean, besteei atsegin ematean, zaintzaren arduraren edo bizitzari eusteko lanetan sozializatutako emakumeek errazago lagundu dute bake prozesuetan. Hala ere, zera dio Maria Vilellas Ariñok³:

*[...] irudi femeninoari eransten zaion ustezko izate bakezale hori idealizatu arren, emakumeek euren gizarteetan bakegintzari egin dioten ekarpenak ez du aitortza sozialik jaso, eta sarritan ikusezin bihurtu dira. Hau da, **ideal femenino bakezale hori gizartea eraldatzeko helburua duen subjektu aktibo bihurtu denean**, bigarren maila batera zokoratu da, ia aukerarik utzi gabe eremu publikoan eta politikoan eragiteko.*

² GERDA LERNER (1986). La Creación del Patriarcado (59. or.) Katakarako liburuak (lehen edizioa, 2017). Iruñea.

³ MARÍA VILLELLAS ARIÑO. Hallar nuevas palabras, crear nuevos métodos. La participación de las mujeres en los procesos de paz. (8. or.). Artikulua [online](#).

Guadalupe Cavero Martínezek antzeko zerbait dio⁴, eta honako hau deskribatzen du:

Emakume askok, biktima estigma horretan erori gabe, beste bandoko emakumeekin hitz egin dute, eta zenbait ekimen gauzatu dituzte, nazioarteari ikusarazi diotenak emakumeek bakegintzan zeresan handia izan dezaketela. Luzaroan, inolako aitortzarik jaso gabe eta modu aktiboan kontuan hartuak izan gabe.

Eta, ikusezinak izan eta aitortzarik jaso ez duten arren, kontaezinak dira emakumeek historikoki bultzatu dituzten bake prozesuak eta harreman-estrategia positiboak.

Borondatezko lanetik ekintza politikora

XX. mendeko 90eko hamarkadan, emakumeak indar handiagoz hasi ziren bitartekari gisa jarduteko lekua eskatzen eta bake prozesuetan beren parte-hartzea aldarrikatzen. Ruandako eta Bosniako gatazken testuinguruan gertatu zen hori —gatazka haiek komunikabideen bidez ikusi zituen mundu osoak—, eta, gatazka armatuetan emakumeek jasaten dituzten berariazko indarkeriei buruz kontzientziatzen hasi zen jendea. **Beijingeko Adierazpen eta Ekintza- plataformak, halaber, emakumeen eta gatazka armatuen arteko problematika bere kezka nagusietakotzat hartu zuen**⁵.

2000. urtean, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak emakumeen, bakearen eta segurtasunaren inguruko 1325. ebazpena onetsi zuen. UN Women-ek azaltzen duenez, “ebazpen horrek emakumeek bakearen egonkortzean parte hartu dezaten eskatzen du, giza eskubideen urraketen aurrean babestuagoak egon daitezela, eta sarbidea izan dezatela justiziarra eta diskriminazioaren aurkako zerbitzuetan”⁶. Eskaintzen dituen datuen artean, nabarmentzekoa da 1992tik 2011ra bitartean negoziazio mahaietan parte hartutakoen artean % 9 baizik ez zirela emakumeak. Areago:

1992tik 2019ra bitarteko epean,⁷ soilik negoziatzaileen % 13, bitartekarien % 6 eta sinatzaileen % 6

ziren emakumeak munduko bake prozesuetan.

⁵ GUADALUPE CAVERO MARTÍNEZ (2021). *Las mujeres en los conflictos y postconflictos armados: la resolución 1325 de la ONU y su vigencia hoy.* (17. or.)

⁶ <https://www.unwomen.org/es/what-we-do/peace-and-security>

⁷ CONSEJO DE SEGURIDAD DE LAS NACIONES UNIDAS (2021). *Informe del Secretario General sobre las mujeres y la paz y la seguridad. Women's Participation in Peace Processes.* https://www.unwomen.org/es/what-we-do/peace-and-security/facts-and-figures#_Toc85731439

Denbora-tarte horretan, gainera:

10 bake prozesutik 3tan baizik ez zen izan emakume bat sinatzaileen artean.



Berrikuspen historiko labur horrek eta aurretiaz aipatutako emakumeen sozializazio moduak Irantzu Mendia Azkueren hitzak hobeki ulertzen laguntzen dute⁸:

Emakumeek komunitate edo oinarrizko taldeetan egindako jardueretako asko "borondatezko lan", "karitatezko ekintza" edo "jarduera sozial" gisa sailkatzen dira, eragin politiko argia duten arren.

Hala eta guztiz, bakearen eraikuntzan (peacebuilding) epe luzerako ikuspegi bat izatea komeni da. Izan ere, gatazkaren erroan dauden eta desberdinkeria sustatzen duten egiturak eraldatu behar dira, eta, oinarritik hasita, adiskidetzeko ekimenak artikulatu. Alderdi hori eskasagotzat jotzen da. Horregatik ez du susmorik pizten arlo horretan emakumeen presentziak. Azken batean, horregatik hartzen da positibotzat.

Azterlan honek ikuspuntu hori gainditu nahi luke, eta bakearen eraikuntzan parte hartzen duten emakumeak gizarte eragiletzat hatzen ditu, politikoki eragiteko gaitasuna duten pertsonatzat, gatazka egoera bat aldatzeko gai diren pertsonatzat. Horrela, azterlan honek Nafarroan motibazio politikoa izan duen gatazka- eta indarkeria-testuinguru batean subjektu politiko aktibo izan diren emakume batzuen historia berreskuratuz, eta haien garrantzia aitortu nahi luke.

⁸ IRANTZU MENDIA AZKUE (2009). *Emakumeek bakearen alde egiten duten aktibismoari buruzko oharra*. (15. or.). Hegoa. Eskuragai: <https://ojs.ehu.eus/index.php/hegoa/article/download/10603/9843>

Bakearen konplexutasuna

2008an, Iruñeko Emakume Internazionalistak taldeko ekintzaile Begoña Zabala Gonzalezek, atzeranzko begirada egin zuen Movimiento de Mujeres, Mujeres en Movimiento liburuan, eta honako hau zioen Euskal Herriko motibazio politikoko indarkeriaren gatazkari buruz⁹:

Nabarmena da gure egoera ez dela erabateko gerra edo gatazka armatua, ez eta konfrontazio beliko ireki bat ere. Guk uste dugu, Espainiar Estatuaren eta ETA erakundearen arteko konfrontazioaz gain, biztanleriaren bi zati elkarren aurka jartzen dituen gatazka baten osagaiak daudela. Izenak izen, eta ados jarri edo ez gatazkaren ezaugarrien inguruan, une jakin batean zera ikusi genuen: minek eta liskarrek hor ziraute arren elkarrizketarako eta konponbiderako unea iritsia zela, eta emakumeok, feminismotik, bagenuela, beharbada, gatazkaren inguruan bezalaxe gatazkaren konponbidean ere zeresanik.

Beste ikerlari batzuk emakume bakezaleek euskal gatazkan eginikora hurbildu direnean, garbi ikusi dute jasotako testigantzetan Begoña Zabalak dioen hori: “minek eta liskarrek hor ziraute aurren elkarrizketarako eta konponbiderako unea iritsia zela”:

[...] bakearen aldeko aktibismoan parte hartu zuen emakumeetako batek sentimendu borroka bat zuen. Adibidez, bere lagunen semea bisitatzen zuen kartzelan, eta, egun berean, indarkeriaren aurkako ekintzaren batean hartzen zuen parte. Emakume horren esperientziak argi erakusten du gatazka modu desberdin askotan eragin ziela euskal familiei. Egon zitezkeen familia berean ETako kideak eta haien biktimak¹⁰.

Azterlan honetan presente dago konplexutasun hori, gatazka testuinguruetan bake prozesuak aurrera eramateko zailtasuna, alegia. Lan hau ardazteko errelatoak entzun dira, baita emozionalak ere, askotariko ñabardunak dituztenak, eta subjektu politiko eta aldaketa-eragile izan ziren emakumeei erreparatu zaie.

⁹ BEGOÑA ZABALA GONZÁLEZ (2008). Movimiento de Mujeres, Mujeres en Movimiento. (185. or.). Txalaparta, Iruñea.

¹⁰ NETTA MÄKISALO (2021). *Experiencias de las mujeres vascas como constructoras de paz en el conflicto vasco: un análisis feminista de la división de género en el proceso de paz*. Masterreko tesia.

BAKERAKO MUGIMENDUAK ETA ASOZIAZIONISMOA NAFARROAN

Zer eginkizun izan du Nafarroak gatazkan zein bake prozesuan?

Motibazio politikoko indarkeriaren eta terrorismoaren urteetan Nafarroak presentzia nabarmena izan zuen bakearen aldeko gizarte mugimendu nagusienetan. Mugimendu horiek lanean aritu ziren Euskadin ere. Bake prozesuaren aldeko elkarteek adierazi bezala, "Nafarroak arazoa pairatu du, haren parte izan da, eta konponbidearen zein bakearen parte izan behar du"¹¹. Gatazkaren ondorioek, motibazio politikoko indarkeriak eta terrorismoak gogor astindu zuten Nafarroako gizartea: hamarkadetan zehar erailketen, atentatuen, estortsioen, mehatxuen, torturen eta bestelako sufrimenduen lekuko izan zen¹². Ekintza horiek guztiek ezinegona, mina, nahigabea eta tentsio sozialak eragin zituzten, eta nabariak izan ziren kanean, lagun taldeetan eta familietan.

Nafarroako gizartean errotutako indarkeriaren aurkako aurreneko mobilizazioak 80ko hamarkadan eman ziren. 1980ko abuztuan *Diario de Navarra*ko zuzendari zen Jose Javier Urangaren hilketari saiakera zela-eta antolatutako martxa —berrogeita hamar bat mila lagun bildu zituen— inflexio puntutzat har daiteke har daiteke beharbada¹³. Manifestazio hartara deitu zutenek herritarren parte-hartze zuzena eskatu zuten, honakoa adieraziz: "Nafarroan azken aldirian gertatzen ari diren ekintza terroristek herritar guztion mobilizazio irmoa eskatzen dute, bortxa eta indarkeria politika-metodo gisa darabiltenen aurka egiteko funtsezko tresna baita"¹⁴.

Isiltasunaren gizartea deitutakoaren apurketaren lekuko izango ziren hurrengo urteak¹⁵. Askok izan ziren arren testuinguru hartan Nafarroan bakearen alde sortu eta garatu ziren ekimen, talde eta elkarteak, jarraian garrantzi handiena izan zuten bietan jarriko dugu fokua: Bakearen Aldeko Koordinakundea (BAK. Gesto por la Paz gisa ezagunagoa) eta Elkarrri. Aipatutako horiek munta handienekotzat hartzen diren arren, ageriko da tokian tokiko talde eta elkarte txikiagoek efektu biderkatzailea eta hedatzailea izan zutela¹⁶.

Gizarte zibila oinarri

Beste helburu batzuk zituzten arren, bazeuden indarkeriaren aurka publikoki agertu ziren bestelako elkarte, talde eta mugimendu ugari, baina herritarren mobilizazioan beste urrats esanguratsu bat 1986an izan zen: Euskal Herriko Bakearen Aldeko Koordinakundea sortu zen, Gipuzkoan bezalaxe Nafarroan ere presente egon zena. Bertako taldez zegoen osatua, eta haiek ordu erdiko isilunea egiten zuten indarkeriak

¹¹ ELKARRI (n.d.). *Navarra*. (esteka).

¹² Ikusi beste hainbat azterlanetan: MEMORIAREN NAFARROAKO INSTITUTUA. (2020). *Relatos de plomo: El documental*. (esteka); NAFARROAKO GOBERNUA. (2020). *El terrorismo desconocido: Atentados terroristas de extrema derecha en Navarra (1975-1985)*. (esteka); NAFARROAKO GOBERNUA. (2019). *Proyecto de investigación de la tortura y malos tratos en la Comunidad Foral de Navarra entre 1960-1978*. (esteka)

¹³ NAFARROAKO MEMORIAREN INSTITUTUA. (2020). *Relatos de plomo: El documental*. (esteka)

¹⁴ ESTEBAN, J.M. 1980ko abuztuaren 25a). *Navarra: La Diputación y los partidos llaman a la movilización antiterrorista*. *Diario 16*. (esteka)

¹⁵ MORENO, I. (2015). *Movilizaciones pacifistas en el País Vasco: Los inicios de Gesto por la Paz*. *Revista de Paz y Conflictos*, 8. zk., 2, 227.-242. or (esteka)

¹⁶ FUNES, M^a JESÚS. (1996). *La salida del silencio: Movilizaciones por la paz en Euskadi 1986-1998*. Akal.

eragindako heriotza bat gertatzen zen aldiro. Iruñean, alde zaharreko taldeak gisa horietako elkarretaratzeetan erakusten zuten pankartak halaxe zion: “La paz depende de ti. Pakea zure eskuetan dago”¹⁷. Azpimarratu beharrekoa da elkarte horretako kideek beren borondatez hartzen zutela parte: “Horrek guztiak lana eskatu zigun, eta neketsua zen... denok baikinen boluntario. Lanetik atera orduko hasten ginen gure zereginetan, baina, noski, lan egin beharra zegoen”¹⁸. Pertsona boluntarioak izate horrek isla izan zuen bestelako elkarte eta esperientzia askotan ere.

Elkarte hori Bakearen Aldeko Koordinakundearekin (BAK) elkartu zen azkenik, ordura arte Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetan zegoen koordinakundearekin —Bizkaian zuen indarra bereziki, han sortu baitzen, Euskal Herriaren Bakearen Aldeko Koordinakundea izenez—¹⁹

Elkarte horren diskurtsoa eta ildoak indarkeriarik ezaren ideiatik abiatzen ziren. Oinarri bakezalea zuen mugimendu bat zen, Mahatma Gandhi zen taldearentzat erreferentea eta balio kristau batzuekin lotu daiteke. Pertsona boluntarioz osatua, BAK-ek beti adierazi zuen bere egituran pertsona bakar bat edo bi zirela liberatuak, ez gehiago²⁰. Tokian tokiko BAKeko talde desberdinak elkartzen zituen urteroko manifestazioaz gain, elkartearen ardatz nagusia tokian tokiko taldeak ziren. Haiak modu boluntarioan sortu ziren, eta, indarkeria politikoaren testuinguruan gertatzen zen heriotza bakoitzaren ostean, herriko plazetan eta parkeetan, elkarretaratze isilak deitzeko ohitura partekatzen zuten. 15 minutuko isilune horiekin, BAKek egindako lanari esker, aldaketa bat gertatu zen: “gizartearen isiltasunetik, isiltasuna adierazpide gisa erabiltzera”²¹.

Arlo sozialean, BAK bakearen aldeko elkarterik garrantzitsuenetako bat bihurtu zen, bai maila autonomikoan, bai gerora maila nazionalean. Zenbait ekimenek —xingola urdina edo “Jose Maria etxera” leloa (90eko hamarkada erdialdera izandako enpresarien bahiketen aurkakoak)—, gizartearentzat ordura arte ezezaguna zen gizarte mugimendu handia sortzea lortu zuten. XXI. mendeko lehendabiziko urteetan, jendearen partaidetzak behera egin zuen, baina beti egon zen presente.

ETAren indarkeria armatuaren amaiera iragarri eta bi egunera, 2011ko urriaren 22an, BAKek prentsurreko bat eman zuen “Lortu dugu” lelopean, elkartearentzat “ospakizun ekitaldia, eskerrak emateko ekitaldi bat” izan zena²³. Lelo horrekin berarekin egin zuen BAKek bere azken manifestazioa 2012ko otsailean, eta, azkenik, 2013an bere ibiliari amaiera ematea erabaki zuen.

Elkarbizitzarako proposamenak landu zituen beste elkarte ezagun bat Elkarri izan zen, elkarrizketaren eta akordioaren aldeko gizarte mugimendu gisa ere ezaguna izan zena²⁴, 1992ko abenduaren 20an Donostian sortua. Elkarte horren muina elkarrizketaren eta elkarbizitzaren aldeko apustua zen, indarkeriaren gaitzespena egiteaz batera. Elkarrik garbi zuen motibazio politikoko gatazkak gizarteari eragiten ziola, bere osotasunean, ez bakarrik

¹⁷ GESTO POR LA PAZ (2013). Enhorabuena.

¹⁸ Elkarrizketa: J.A.

¹⁹ GUILLENEA, J. (25 de noviembre 1989). *Gesto por la Paz y Asociación por la Paz se unen para crear una plataforma única contra la violencia*. El Correo. (esteka)

²⁰ GESTO POR LA PAZ (2013). Enhorabuena. 50. orria.

²¹ FUNES, M^a JESÚS. (1996). *La salida del silencio: Movilizaciones por la paz en Euskadi 1986-1998*. Akal.

²² GESTO POR LA PAZ (2013). Enhorabuena. 84. or.

²³ Ídem. 186. or.

biktima zuzenei, eta honakoa argudiatzen zuen: “pertsonei, familiei eta gizartearen sektore desberdinei eragindako sufrimenduaz eta minaz gain, indarkeriak elkarbizitzaren erabateko porrota adierazten du eta guztioi eragiten digu”²⁵.

Azpiraratzeko modukoa da Elkarrik izan zuen nazioarteko proiektzioa. Izan ere, urteetan zehar 30.000 pertsonarekin eta erakunde ugariarekin izan zuen lotura Espainiar Estatuan zein hartatik kanpo²⁶. Nafarroan, Elkarri 600 bazkide izatera iritsi zen, eta haiek bermatzen zuten elkartearen autofinantzaketa. Beste moduren batera bazen ere, milaka izan ziren proiektuan zuzenki parte hartu zutenak²⁷. Eusko Autonomia Erkidegoko datuak gehituta, 150.000 pertsonak eta hainbat taldek osatzen zuten Elkarriren komunitatea²⁸, boluntarioak gehienak.

Ekitaldiei dagokienez, Elkarrik ekintza-estrategia planifikatua zuen. Hau da, haien lana gerta zitezkeen indarkeria-gertaeretatik independentea zen. Hala ere, haien lana gauzatzen zen testuinguruan —sarritan “izualdiek baldintzatua”²⁹—, errealitate konplexua sortzen zen, eta horrek elkarrizketa zailtzen zuen. Baldintza horietan, Elkarrik alderdien arteko elkarrizketa mahaiak bultzatu zituen, sinadura bilketak antolatu, manifestazioetarako deia egin, eta hiru bake konferentzia ere antolatu zituen^{30,31}.

Elkarriren perspektibaren ideia nagusia “hirugarren espazioa” deiturikoa zen, gizarte elkarrizketaren aldeko rol aktibo batean eta gatazkaren irtenbide adostu baten alde kokatzen zuena. “Erabakitzeko gaitasuna eta itunak egiteko obligazioa”³² leloak Elkarrik egindako lanaren dimentsio soziala eta politikoa batzen ditu. Gizarte bakean oinarritutako jendarte baten alde egiteko subjektu politiko gisa onartzearekin batera, akordioak lortzerako orduan alderdi desberdinen arteko engaiamendu erreala baten bila zebilen Elkarri.

2006an, 13 urteko lanaren ostean eta hasieran ezarritako helburuak beteak zituela sinetsita, Elkarrik desegitea erabaki zuen, eta Lokarri-ri bide eman. Elkarritik Lokarri-rako trantsizioak testuinguru politiko berri bati erantzuten zion, eta elkarteak bake prozesuaren aro berri baten hasiera gisa ulertu zuen. Horrela, zera ondorioztatu zuten: “Elkarrik bake prozesua prestatzen lagundu du. Erakunde berria (Lokarri) hura garatzen saiatuko da”³³.

Hurrengo urteetan, eta 2015ean bere lana amaitutzat eman zuen arte, Lokarrik Nafarroan ere gauzatu zuen bere jardunaren parte bat; bereziki, bake prozesuan herritarrek parte hartzeko prozesuak bultzatzen³⁴.

Batera ere antolatu zituzten elkarte horiek zenbait jarduera eta kanpaina: arestian esan bezala, biak zetozen bat bake prozesuaren aldeko engaiamendu irmoan, eta, era berean, Elkarrik eta BAKek desberdintasunak zituzten beren antolaketari, jarduteko moduari eta eragiteko eremuari dagokienez. Nafarroan, Bakearen Aldeko Koordinakundea hiriburuan aritzen zen batik bat, Iruñean. Elkarriren presentzia, aldiz, zabaldago zegoen. Akaso, desberdintasun horien arrazoa erakundeen jarduteko

²⁴ ELKARRI (1992). Prentsa oharra: elkarri, un nuevo movimiento social por el diálogo y el acuerdo. (esteka).

²⁵ ELKARRI (1999). *El proceso de Paz en Navarra*. 13. or.

²⁶ ELKARRI (n.d.). *Las siete etapas de la historia de Elkarri*. 18. or.

²⁷ MARTÍNEZ, E. (2012ko abenduaren 14a). *Elkarri: La semilla del diálogo y la reconciliación*. *Noticias de Navarra*. (esteka)

²⁸ ELKARRI. (n.d.). *Las siete etapas de la historia de Elkarri*. 18. or. (esteka)

²⁹ Idem. 8. or. (esteka)

³⁰ ELKARRI. (n.d.). *Una cronología de 13 años de actividad*. (esteka)

³¹ MARTÍNEZ, E. (2012ko abenduaren 14a). *Elkarri: La semilla del diálogo y la reconciliación*. *Noticias de Navarra*. (esteka).

³² ELKARRI (n.d.). *Síntesis de la historia de Elkarri en una frase, un párrafo y cuatro trazos*. (esteka)

³³ ELKARRI (n.d.). *Las siete etapas de la historia de Elkarri*. 16. or. (esteka)

³⁴ LOKARRI (2015). *Hilando la paz: La historia de Lokarri*. (esteka)

ereduan zetzan. Hau da, BAKeko taldeak elkartari modu espontaneoan batzen zitzaizkion pertsonak sortuak ziren, Elkarri modu estrategikoagoan sortzen zituen gune horiek, elkartaren beraren hedapena bilatzeko³⁵.

Desberdintasun horiek, ordea, elkarten arteko lankidetzaren onuragarriagoa egiten zuten. Izan ere, jende gehiagorengana iristen ziren horrela. Bakearen Aldeko Koordinakundeko kide izandako batek dioen moduan, "badaude gu (BAK) iritsiko ez garen sektore batzuk, eta Elkarri bai, ordea, eta iritsi, iristen ziren, eta jendea konbentzitzen zuten. (...) Talde bakoitzak bere publikoa zuen, nolabait esatearren. (...) Harreman handi samarra izan genuen"³⁶. Elkarri ere aitortzen da lankidetzaren hori, zera gogoratuz: "gure gizarte mugimenduaren beste lan-ardatz garrantzitsu bat Bakearen Aldeko Koordinakundearekin izandako lankidetzaren izan zen. Ekimen desberdinak konpartitu genituen"³⁷. Azken batean, lankidetzaren horien bidez elkarteek elkar osatzea lortu zuten, bai ekimen garrantzitsuak gauzatzeko orduan³⁸, bai elkarten eginkizunarekin bat egiten zuen gehiengo sozialarengana iristerakoan.

³⁵ FUNES, M^a JESÚS. (1996). *La salida del silencio: Movilizaciones por la paz en Euskadi 1986-1998*. Akal.

³⁶ Entrevista J.A.

³⁷ ELKARRI.(n.d.). *Las siete etapas de la historia de Elkarri*. (esteka)

³⁸ ELKARRI (n.d.) *Principales iniciativas de colaboración con Gesto por la Paz*. (esteka)

³⁹ Elkarriketa F.A.

AZTERLANAREN HELBURUAK ETA METODOLOGIA

Helburuak

Azterlan honen helburu nagusia honakoa da: Nafarroan motibazio politikoko indarkeriaren eta terrorismoaren urteetan **bakearen eta/edo elkarrizketaren aldeko mugimenduetan parte hartu zuten emakumeen rolararen inguruko ezagutza handitzea.**

Horretarako, **Nafarroan bakegintzan jardun duten emakumeen** arteko elkarrizketak eta topaketak sortzea du helburu proiektuak, eta, horrela, ezagutza partekatu bat eraikitzea, hura sistematizatzeari eta hedatzeari gain. Gure memoriaren eraikuntzan emakumeen partaidetza eta ordezkariak egokia bermatzearen garrantzia azpimarratzen da, eta bakegintzan **izan duten rola ikusaraztea** ere bai.

Horren bidez, **indarkeriaren ondorioen** eta, bereziki, azken hamarkadetakoko giza eskubideen urraketek ekarritako gizarte-hausturen inguruko **hausnarketa soziala pizteko moduak eta espazioak bultzatu** nahi dira, emakumeen eta gizarte zibil antolatuen rolarari arreta berezia jarritz.

Halaber, Nafarroako hainbat eragilek **bakearen eta elkarbizitzaren arloan egindako hausnarketei, ekimenei eta ekintzei** lagundu nahi zaie, eta, **gizarte gaitu** datozen urteetan bake eta elkarbizitza prozesu bati aurre egiteko behar diren jokabideei loturiko ezagutza sortuz.

Metodologia

Elkarte desberdinetan eta bakearen aldeko mugimenduetan parte hartutako emakumeen bizi esperientzietan oinarritutako ezagutza sortzera dago bideratuta azterlan hau. Horrela, **ikerketak parte-hartzailea** da hau, eta hauxe bilatzen dugu: partaide diren emakumeak prozesu osoan zehar protagonista eta subjektu sentitu daitezela, eta ez daitezela izan azterketarako objektu edo aztertu nahi diren gertaeren testigu huts.

Era berean, lanaren izaeratik beragatik, **metodologia kualitatiboak** izan dira ikerketa osoaren oinarri, eta ikerketan norbanako gisa edo kolektiboki parte hartu duten emakumeen hausnarketen inguruan ardaztu da lana. Gure helburua da ikerketa hau integratu nahi duten emakumeak prozesuaz jabetzen joatea, eta, elkarrizketaren eta hausnarketa konpartituaren bidez, informazio eta esperientzia truke bat berma dezatela, ondorio eta konklusio komunak sortu ditzatela.

Hauexek izan dira garatutako bi metodologiak:

1. **Elkarrizketa erdiegituratuak**, emakumeei banaka edo talde txikietan egindakoak (bi pertsona gehienez). Elkarrizketa horien bidez inguru goxo bat sortu nahi da, partaide bakoitzari egokitua, bakoitzaren bizipen pertsonal bakoitzari buruzko informazioa eta hausnarketak lortzeko. Galdetegi-eredu bat prestatu da elkarrizketa guztietarako, malgua eta moldatzeko modukoa izan dena, elkarrizketatuko pertsonak berak proposatutako gaiei erantzunez.
2. **Focus group / eztabaida taldea / talde elkarrizketa.** Talde-topaketak antolatu dira aurretiaz aipatutako taldeetan parte hartzen zuten emakumeekin, talde berean egondako emakumeekin, beren esperientziak kontrastatu zituzten. Norbanakoekin erabilitako galdetegiaren egitura bera erabili da, dinamika parte hartzaileak sortuz, zeinetan partaideek beren bizipenak kontatu ahal izan dituzten, besteenak entzun, eta elkarbanatze horretatik abiatuta hausnarketa berriak sortu.

Elkarrizketatutako pertsonak

Prozesu desberdinetan parte hartutako emakumeen bizipenak jasotzeko, besteak beste, talde hauetan parte hartzen zuten emakumeak identifikatu dira: Elkarri/Lokarri mugimenduak —konponbide baketsu eta elkarrizketan oinarritua sustatzen zuten gizarte mugimenduak—, bai eta BAK ere —elkarte horrek elkarretaratze publikoetarako deia egiten zuen, eta haietan parte hartzeko gonbita egiten zuen—.

Argi eta garbi identifikatutako talde horiekin batera, beste emakume batzuen kontakizunarekin osatu da analisia. Emakume horiek espazio sozialak eta ekintzara bideratutako guneak sortzen zituzten Nafarroako gizartean, eta indarkeriaren eta haren ondorioen aurkako jarrerak ikusarazi zituzten.

Hirugarren talde batean, bakegintzaren esparruarekin erlazionatutako ekimenetan parte hartu zuten gizon batzuk sartu ditugu. Haien bidez geureganatuko dugu talde sozialetan zebiltzan gizon eta emakumeen iritzia, eta egoeraren ikuspegi zabalago eta pluralagoa osatzen lagunduko digute.

Gisa horretan, azterlanak bakegintzarekin lotutako ekimenetan zuzenki inplikaturako **16 emakume** ahots hartu ditu, eta lanagatik edo aktibismoagatik mugimendu horietatik gertu ibilitako **2 gizonena** ere bai. Gainera, beste hiru pertsonarekin ere hitz egin dugu, kontaktuak eta testuinguruari buruzko informazioa biltzeko helburuz. **Guztira, 21 pertsona** izan dira ikerketaren parte.

Banakako elkarrizketak bakegintzaren arloko emakumeei

- 1 E.I.
- 2 A.E.
- 3 M.I.
- 4 M.O.
- 5 M.H.
- 6 F.A.

Talde-elkarrizketak Elkarri/Lokarri mugimenduetako emakumeei

- 7 M.V.
- 8 T.F.
- 9 M.L.
- 10 B.B.
- 11 R.E.
- 12 G.S.
- 13 B.T.
- 14 E.R.
- 15 E.I.
- 16 M.G.

Banakako elkarrizketak bakegintzarekin zerikusia duten gizonei

- 17 J.A.
- 18 F.A.

Kontsultatutako beste pertsona batzuk⁴⁰:

- T.P.
- V.A.
- P.R.

⁴⁰ Nafarroako Memoriaren eta Bizikidetzaren Zuzendaritza Nagusiak emandako ideia eta proposamenak ere jaso dira.

ANALISIA

Jarraian, elkarrizketa eta talde-eztabaidetatik ateratako analisia aurkeztuko dugu. Elkarrizketa haiek egiteko honako galdetegi-eredu hau erabili zen — galdetegiaren egitura ere erabiltzen da analisiaren atal honetan—:

Galdetegi-eredua

BAKEA: Zer lotura duzu bakezaletasunarekin (bakearen aldeko aktibismoarekin)? Zergatik bakea? Zerk bultzatu zintuen zure taldean parte hartzera?

PARTE-HARTZEA: Zein zen ekintzaileen zeregina? Nolako zen bakearen aldeko aktibismoan parte-hartzea?

GENEROA: Izan al zenuen zailtasunik zure aktibismoan emakume izateagatik? Zer iritzi duzu honako baieztapen hauei buruz? Emakumeek bakerako gaitasun handiagoa dute. Gizonek emakumeek baino protagonismo handiagoa dute bake prozesuetan. Gogoan dut taldeko emakumeak lan-karga zela-eta estu eta larri ibiltzen zirela (seme-alaben zaintza, militantzia, lana...). Emakumeek gutxiago hitz egin genuen gizonen aurrean geundenean; Ez dut uste genero kontua denik: kontua da une hartan gehiagoa zirela gizon karismatikoak emakume karismatikoak baino, lidergo gaitasun handiagoko gizonak zeudela. Emakumeek ez genuen lidergo postuetan egon nahi.

IRAGANARI BEGIRA: Urte hauen ondoren, nola gogoratzen duzu garai hura? Sentitu al zenuen beldurrik indarkeriaren aurka borrokatzeko zenuen gogoia erakusteagatik? Hartzen al duzu parte gaur egun bestelako mugimenduren batean? Nola lagundu dizu bakearen aldeko mugimenduan bizitakoak?

ETORKIZUNA: Etorkizunari begira: zer jakin behar dute atzetik datozenek, bakearen aldeko ekintzaile izan nahi dutenek?

Bakea

Askotarikoak dira bakea lortzeko bideak

Beharbada, elkarrizketatutako emakume guztiak helmuga berera iritsi dira, bakegintzan parte hartzera, baina guztiak ez dira abiapuntu beretik abiatu. **Giza eskubideen defentsa, parrokiatako jarduerak, lankidetzeta eta bestelako sozialak; ama izatea bera edo proiektu politiko baten aldeko apustua...** Askok izan dira elkarrizketatutako emakumeak bakea aktiboki defendatzera eramantzen dituzten bideak.

Giza eskubideak

“**Aisialdiko begirale** izan nintzen, **auzolandegietan ibilia, turismo solidarioan**... Horrelako gauzak” (A.E.)

“**Eskubideen defentsak** beti erakarri nau” (E.I.)

“Osagaietako bat giza eskubideen gaineko prestakuntza zen” (F.A.)

Eliza

“Hemen, Nafarroan-eta, militantzia berezi bat zegoen; [...] orduan jende asko **oinarrizko kristau komunitateetan** sartzen zen, eta nagusi zen elkarrizketa, bilaketa, talentua eta zintotasuna. Nik uste dut hor bildu nituela printzipio batzuk” (M.I.)

“Alde Zaharreko **oinarrizko kristau komunitate alternatibo bati lotua** nengoen, eta uste dut horko norbaiten bidez ezagutu nituela Bakearen Artisauak izeneko taldea” (M.O.)

“Ni kristau tradiziotik nentorren (...) **Kristau fedek gehiago ninderaman arlo sozialera**, eta ez hainbeste kontenplaziora edo otoitzera. Zerbaitek gizarte gaietara ninderaman” (J.A.)

Lankidetzeta eta bestelako aktibismoak

“21 urterekin, **Chiapasera joateko aukera** sortu zitzaidan, **bake kanpaldi batera**” (M.H.)

“Gero, **Intsumisio mugimenduan**.” (M.H.)

Ama izatea

“**Nire seme-alabengatik**, kristaua naizelako, ez zaizkidalako eztabaidak gustatzen; ni zerbait eraiki nahi nuen, eta ez suntsitu” (Elkarriko Emakumeak)

“Zegoen liskar-giroak kezkatzen ninduen. Nire seme-alabez ere kezkatzen nintzen, indarkeria-giroetara zuten hurbiltasunaz” (Elkarriko Emakumeak)

“[...] beharrezkoa ikusten nuen gatazka bideratzeko beste era bat. **Alaba mugimendu horietan murgilduta ikusi nuenean, oraindik eta beharrezkoago**” (Elkarriko Emakumeak)

Irrika eta sufrimendua

“Halakoa zen sufrimendua, hainbestereinokoak eskubide urraketak... ezen ikusi nuen pankarta batean jartzea ez zela aski, beste **zerbait egin beharra zegoela**” (Elkarriko Emakumeak)

“Gatazka korapilatua zegoen, usteldua, **desataskatzen lagundu behar zen**” (Elkarriko Emakumeak)

“Gatazka oso modu pertsonalean bizi nuen nik, sufritzen zuen jendea nuen inguruan: nire lagun baten bikotekidea errefuxiaturik zegoen, nire aita abertzalea zen.... Nik, agian, munduaren gaineko ikuspegi zabalagoa nuen [...]” (M.O.)

“**Nire herriarekiko maitasunagatik**” (Elkarriko Emakumeak)

Bakea, batzuetan, gure bidera ateratzen da

Bakea lortzeko abiapuntu desberdinetatik abiatzen garenez, bakea desberdina da norbanako bakoitzarentzat. Batzuetan, **bultzada irmoa** izaten da bakea: “Bake nahia berezkoa izatean da ia, [...] **gatazka hau konpontzeko gogoa**” (Elkarriko Emakumeak). Beste batzuetan, **ustekabeko enkontrua** da: “Nik garbi nuen gizarte mugimenduak gauzen eragile izan zitezkeela, baina ez nengoen bereziki bakearen gaian murgilduta: **bakea nire bidera atera zen**” (A.E). Eta, sarritan, bakearena, **bidaia pertsonal eta politikoa** izaten da, beldurrak uxatzea, begirada zabaltzea eta bihotza eskuzabaltasunez betetzea eskatzen duena.

“[...] nik ere egin dut bide bat, aitortzen baitut amorru handia izan diodala beste aldeari, frustrazio handia arbitrariotasunagatik, polizien gehiegikeriengatik ...” (M.I.)
 “Hasieran, ETArek alde nengoen, eta pozten nintzen zerbait gertatzen zenean. Sentimendu sakona nuen euskaldun identitatearekin. Gero, gauzak urruti joan ziren, eta **errudun sentitzen hasi nintzen. Konpartitzeko premia nuen, elkarrizketa beharra**. Hortik zihoan bidea, eta zerbait egin behar zen” (Elkarriko Emakumeak)

“Egoerak eraman nau, baina Foroan asko ikasi dut. **Ni pertsona hobea naiz orain**: ez dut hainbeste gorroto, ez naiz hain estremista gauza horietan, jendearekiko... Gehiago onartzen dut”(E.I.)

“Gaztetan aldarrikatzeko eta exijitzeko joera nuen, nahiz eta, bakegintzan oinarrituta, suminduratik ere egiten nuen. Gaur egun, **sumindura hori bideratzeko**, ulertzeko eta kokatzeko **beste errekurtsio batzuk dauzkat**, eta orain irmotasunetik eta asertibitatearekin egiten dut” (M.H.)

Bakea, beraz, leku eta maila desberdinetatik urratzen den bidea da. Prozesu konplexua da ibiltzen duenarentzat, asko eskatzen diona, eta, gainera, bere ezaugarri propioak dauzka: “[...] **bakegintzako militantzia, beste militantziak ez bezalakoa da. Zuk zaintzen dituzu besteak** [...]; **bitartekaritza lana** egin dugu bakegintzan ibilitakoek” (E.I.).

Nork osatzen zituen bakearen aldeko mugimenduak Nafarroan?

Elkarrizketatutako emakume askok parte hartu zuten talde, mugimendu, elkarte edo ekimenen heterogeneotasuna aipatzen dute. Baieztapen horrek, ordea, ñabardura batzuk eskatzen ditu, **erakundu batzuk beste batzuk baino pluralagoak baitziren**.

“Boluntario gehienak **60 bat urteko emakumeak ziren**. Errepresio frankista pairatu zuten pertsonak ziren, eta borroka egiteko gune eroso eta seguru bat aurkitu zuten hor” (A.E.)
“Antimilitarismoan zebiltzanen profila intsumisiotik zetorren, eta **politikoki nahiko uniformeak zen**. Beste [mugimendu] batzuetan agian pluraltasun handiagoa zegoen, baina **gatazkaren erdigunean mugitzen ziren**” (A.E.)
“Emakumeak gehiago ziren gizonak baino, baziren-eta gizonak ere, batez ere **parrokietan zebilen jendea**” (M.I.)
“[...] jende gehiena **tarteko adinekoa** zen, 55 bat urte ingurukoa” (M.I.)
“**Jendea gehienbat ezkerrekoa zen**; oinarri kristaua zutenak; jende plurala, gehienak ikasketak zituztenak, baina ez denak...” (F.A.)
“**Emakumeak** ginen gehienbat” (Elkarriko Emakumeak)

Mugimendu edo erakundeetan nabarmena zen zer motakoak ziren kideak, baina berezitasunak zituzten **funtzionamenduan** ere:

“[...] estrategia **buru pentsalari** batetik abiatzen zen. (A.E.)
“Topaketak elkarrekin pentsatzen ziren eta estrategiak nonbaitetik zetozen: gero **jendeak onartu egiten zituen, edo aldatu**” (M.I.)
“Erakundea oso **demokratikoa eta horizontala** zen” (F.A.)
“Ez zen asanblearioa” (Elkarriko Emakumeak)
“[...] iruditzen zitzaidan [...] taldeen antolaketak nahiko **berdintasunean oinarritutakoak** zirela” (M.H.)

Nolanahi ere, gauza berean nabarmentzen dira mugimendu guztiak: kideen arteko errespetua mantendu zutela, nahiz eta batzuek garrantzi handiagoa ematen zieten **ekintzei eta estrategiei**, eta, beste batzuek, aldiz, arreta handiagoa jartzen zuten partaideen **zaintzan**:

“ [...] batzar asko, debate asko... Batzuetan, ez oso eraginkorrak, **baina pertsonak zaindu egiten genituen**” (A.E.)
“Zerbait gertatzen zenean, etsipena sortzen zen, eta, nik uste taldeak **animoari eusten ere laguntzen zuela**” (M.I.)
“Jendeari abegi egiten zion norbait egoten zen. **Lanak partekatu egiten ziren**, talde oso atsegina zen” (M.O.)
“Ez ziren ondoezak eta ezinegonak partekatzen, herritik zetozen edo mugimendutik bertatik proposatzen zizkiguten **gaiak eztabaidatzeko zen**” (Elkarriko Emakumeak)

Iraganari begira

Azterlanean parte hartu duten emakumeak atzera begira jarri ditugunean, ezinbestekoa da beldurrari buruz galdetzea. Dena dela, askotarikoak izan dira erantzunak. Emakumeetako batzuk **hainbesteko konbentzimendua zuten**, hainbeste sinesten zuten egiten ari ziren horretan, ezen **ez zegoen beldurrarentzako tokirik**:

“Nire kasuan, **hain argia eta nabarmena iruditzen zitzaidan giza eskubideen aldeko mezua**, ezen gainerakoa ezer gutxi axola zitzaidan” (A.E.)

“Arduradun nintzela niri segika zebiltzala konturatu nintzenean pasatu nuen beldurra. 94a izango zen. Baina pasatu zen. Dena dela **hain sinetsita nengoen zuzena zela egiten ari ginena**, ezen ez zegoen beldurrarentzako tokirik” (Elkarriko Emakumeak)

“**Hain zuzena eta justua zen** [defendatzen genuen] **diskurtsoa, eta hain sinetsirik genuen, ezen berdin zen zer esaten ziguten**” (Elkarriko Emakumeak)

“[...] mehatxuak egon ziren, ezker abertzaleak eginak eta eskuin muturrak ere bai. Baina **nik ez nuen beldurrik pasatu**” (Elkarriko Emakumeak)

Kasu batzuetan, gainera, talde bateko kide izateak **adorea ematen zien** itxura batean egiteko gai ez ziren gauzak egiteko:

“Niri [hor parte hartzeak] **indarra ematen zidan jendeari zer pentsatzen nuen esateko. Jendaurrean esateko adorea sentitzen hasi nintzen. Mugimendu batean parte hartzeak indarra ematen zuen**” (Elkarriko Emakumeak)

“**Adorea ematen zigun. Denetik egin dut...** Gauza harrigarriak. Nola ausartzen nintzen? Nola egiten nuen? Erotuta nengoen. Balentriak” (Elkarriko Emakumeak)

Beste emakume batzuek onartzen dute **beldurra** pasatu izana, baina ez bakearen aldeko mugimenduetan, baizik eta **bestelako guneetan**:

“[Bakegintzan] ez dut beldurrik sentitu. Lehen, bai. Batzuetan, bai. Baina ez bakegintzagatik, baizik eta **nire militantzia politikoagatik**” (E.I.)

“Ez nuen sekula sentitu beldurrik, ezta manifestazioetan ere. Nerabezaroan, ordea, bai. Garai hartan **grisen aurrean egiten genuen korrika**” (M.I.)

“Nire institutu garaia igual izango zen beldur handiena pasatu izan nuena, eta **poliziaren errepresioarekin zegoen lotuta**” (M.H.)

Edozein modutan, emakumeek onartzen dute beldurra izateko faktore zela **kokapen geografikoa edo zer taldetan zeuden bakearen aldeko mugimenduan**:

“Ez nuen beldurrik sentitu inolako momentutan. Uste dut hutsaren hurrengo ginela. [Nahiz eta parte hartu nuen taldeetariko batean] sentitu nuen halako deserosotasun bat, gai mediatiko bat zela medio, polarizazioa... **beldurrik ez, baina bai zer pentsa eman zidala**” (M.O.)

“Ez nuen beldurrik sentitzen, erakundea nazioartean oso aintzatetsia baitzen. Izan zen garai bat, ordea, egunkariak-eta ixten zituztenean, eta guk torturak salatzen genituela-eta bazegoen beldur bat legez kanpo utziko gintuztela” (F.A.)

“Gune geografikoak asko baldintzatzen zuen. Adibidez, **ez zen gauza bera Nafarroaren hegoaldea**” (Elkarriko Emakumeak)

“**[X mugimendukoek] ez zuten hain erraza**. Gaizki ikusita zegoen. Alde batekoak ziren”. (Elkarriko Emakumeak)

“**Nire herrian [X mugimendukoek] ziur beldurra pasatu zutela**” (Elkarriko Emakumeak)

Aurretik mugimendu sozialen batean edo militantzia politikoa izan eta gero bakearen aldeko mugimenduetan sartu ziren emakumeei, zera galdetu diegu: garai haietan zer iritzi zuten **bakearen aldeko mugimenduei buruz**. Erantzunak koherenteak dira gatazka une harekin, non aldeek bidegabekeria beste aldearekin identifikatzen zuten, **mesfidantza** handia zegoen:

“Igual **ez zen oso atsegina**. [...] zuk bakea egin nahi duzu, baina zeinen kontura? Zer nahi duzu? Nik amore ematea? [...] Batzuk [kalera] ateratzen ginen zerbait gertatzen zenean; beste batzuk, beste zerbait gertatzen zenean...” (E.I.)

“Gesto por la Paz eta holako mugimenduak ikusten nituenean... Orain uste dut haien ekimena oso heroikoa izan zela, zegoen krispazio mailagatik, baina ni momentu horretan... [...] Ni mugitzen ninduen errepresioa zen, ez erantzun bortitza. Nik **estatuaren erreminta bezala bizi nituen Gesto eta holakoak**” (M.H.)

Bakea ekintza politikoa da

Batzuek lehenago eta beste batzuek geroago, baina emakume guztiek aitortu dute **bakearen alde zuten aktibismoa ekintza politikoa izan zela**. Ez zuten denek hain argi izan orain urte batzuk egin zutenean, baina, denborarekin, denek konpartitzen duten egia bat da, inolako zalantzarik eta ñabardurarik gabea:

“**% 100 ziur nengoen** egiten nuena ekintza politikoa zela” (M.I.)

“Garai hartan ez nintzen jabetzen ekintza politikoa zela. Gerora, **kontzientzia hartu nuen Amnistia Internazionalari esker**, bestelako lekuetan giza eskubideen aldeko mugimenduak ikusiz” (M.O.)

“**Nire lana ekintza politikotzat hartzen nuen**” (F.A.)

“Gutziz politikoa zen, baina bagenekien **kontua sozialki ere mugitu behar zela**” (Elkarriko Emakumeak)

Emakume bakezalea? Bai, noski

Egindako elkarrizketetan zehar, parte hartu duten emakumetariko askok, hasieran, aditzera ematen zuten gizonak izan zituzten baldintza berberetan parte hartu ahal izan zutela, hau da, ez zirela ez gutxiago ez gehiago gizonak baino. Alabaina, elkarrizketetan eta taldeetan partekatutako orduetan zehar, bizipen desberdinak sortu ziren, eta agerian uzten zuten emakumeek zein gizonak bizitzan zituzten rolek, sarritan, eragina zutela beren militantzian, eta alderantziz ere bai, militantzian zuten rola eragina zuela beren bizitza pribatuan.

Haiek azaldu bezala, **bakegintzan ere gizarte dinamikak errepikatzen dira**, eta, ingurune atseginagoa eta aldekoagoa bada ere, badaude mantentzen diren desparekotasunak. Solasaldiak aurrera egin ahala, gainera, emakume batzuek garbi aitortu dute ageriko desabantailan aritzen zirela egoera batzuetan, nahiz eta, ordura arte, horretaz ez ohartu. Bizipen haiek argi erakusten dute bileretan emakumeei ez zitzaizela beti entzuten, deseroso sentitu zirela beren gizonetako taldekideek egindako iruzkin desagokiak zirela-eta, edo taldean onartua zegoela emakumeek beteko zutela erakundeetan “zaintza” rola, edo militantziak talka egiten zuela familiako betebeharrekin. Zenbait emakumek zioten beren militantzia utzi behar izan zutela zaintza lan horietan aritzeagatik, eta, elkarrizketatutako gizonak diote, batzuetan, zaila zela erakundea ordezkari zezaketen eta presentzia handiagoa izan zezaketen emakumeak aurkitzea.

Azterlan honetarako egindako bilera eta elkarrizketetan zehar, konturatu gara prozesuak berak balio izan diela zenbait emakumeri beren bizipenak berrikusteko eta haiek beste ikuspegi batetik aztertzeko. Gauzak oroitzeko, hausnartzeko eta elkarrekin gogoetatzeko elkartzeko, beste emakume batzuei entzuteak edo, bestetik gabe, bizitakoa berresteko gune bat irekitzeko, garai haiek gaurko errealitatearen ikuspegitik irakurtzeko edo begiratzeko modu berriak balio izan die.

Emakumeek ez dute gizonak baino gaitasun handiagoa bakerako

Esparru teorikoan azaltzen zen bezala, baketik hurbilago dauden rola betetzeko gizarteratu dira emakumeak, eta elkarrizketatutako emakume ia guztiek bat egiten dute ideia horrekin:

“**Ez da berezkoa, hezkuntza kontua da**, gehiago hezten gaituzte hitz egiteko indarra erabiltzeko baino, zerbait egin aurretik

hausnartzeko” (M.O.)

“[...] enpatikoak izateko hezi gaituzte, ulerberak, besteak zaintzeko, isiltzeko, menpekoak izateko...” (A.E.)

“Presentzia handiago daukagu. **Gaitasuna, ez dakit**” (M.H.)

Emakumeek bakerako duten gaitasuna berezkoa eta gizonena baino handiagoa ez izateak ez du esan nahi, nola sozializatu diren kontuan hartuta, **emakumeek berez ez direnik bakegintzan jarduteko tresna gehiagoren jabe:**

“Gure ingurua asko zaintzen dugu, eta **beti** saiatzen gara **adostasun batera ailegatzten**. Beste jarrera bat daukagu. [Gainera,] ez dugu horrenbesteko ‘orgullo’, edo ‘ni naiz’” (E.I.)

“[...] emakumeak oinarrizkoaren, bizitzaren kargu egoten direnez, borrokalariak dira, **bizitza zaintzen baitute**” (M.I.)

“Munduan zehar ikusten dut **emakumeek gaitasuna** dutela, makila bat hartu eta frontera joan beharrean, **elkartzeko** eta modu alternatibo batean borrokatzeko gaitasuna dutela” (M.I.)

“Talante eta jarrera aldetik emakumeak **besteen lekuan jartzen dira**” (Elkarriko Emakumeak)

“Badakigu gure **sentimenduak adierazten**” (Elkarriko Emakumeak)

Gizonak, bake prozesuetako protagonista

Emakume guztiak, eta salbuespenik gabe, bat etorri dira gizonen protagonismoa eta ikusgarritasuna emakumeena baino handiagoa izan dela esatean. Elkarrizketatutako emakume batek, gainera, Irlandako gatazka aipatu zuen: “han ere gizonak ziren agerian zeudenak, eta ziur nago mugimendu bakezaleetan emakume asko izango zirela” (M.O.). Izan ere, **ikusgarritasuna gizonena izan bada ere**, emakume guztiek dute argi **beraiek izan direla bake prozesuei eutsi dietenak:**

“**Gizonena da hitza hartzea, prozesuak diseinatzea, baita hizkuntza edo jarduera motak diseinatzea ere**. Arlo guztietan dute protagonismo handiagoa. Oinarrizko lanean, ordea, emakumerik ez balego, apenas egingo litzatekeen ezer” (M.I.)

“**Aurpegia gizonetzko aurpegia da**, nahiz eta atzean emakumeok egon” (Elkarriko Emakumeak)

“**Emakumeok oinarrian bultzada handia ematen ari gara**, baina gizonetzkoena da lidergoa” (M.H.)

Protagonismoaz gain, emakumeek hitz egin dute **erabakiak hartzeko gaitasunaz** edo **gizonen bake prozesuetan izandako botereaz ere:**

“[...] haien iritzia gehiago hartzen da kontuan, **autoritate handiagoa dute**” (A.E.)

“Suertatu zait iritzi bat bota eta hortik ordu laurdenera gizon

batek gauza bera esanda beste denek esatea: 'bai, zer ideia ona'" (E.I.)

"Ikusi izan ditut gizonak publikoki zuk egindakoaz aprobetxatzen" (Elkarriko Emakumeak)

"Pertsona klabeak egon dira eta denak gizonaek izan dira.

Gizonezkoen boterea emakumeena baino handiagoa zen".

(Elkarriko Emakumeak)

"**Gizonek segurtasunez hitz egiten dute** ez dakizkiten kontuei buruz" (Elkarriko Emakumeak)

Gizonek ere aukera gehiago izan dituzte espazio publikoaz, hitzaz eta lidergoaz jabetzeko:

"Gizonek **formazio handiagoa** zuten, apaizek bereziki" (M.I.)

"Gizonek aukera gehiago izan dute. Hasteko, gizon gehiagok zituzten **ikasketa unibertsitarioak**" (E.I.)

"**Gizonak berriusagoak ziren**.... Baziren nortasun handiko emakumeak, baina ez ziren nabarmentzen" (Elkarriko Emakumeak)

"**Batzarretan, gizonaek emakumeek baino berba gehiago egiten zuten**. Gizonaek entrenamendu gehiago dute horretarako. Nik autozentsura egiten nuen. (Elkarriko Emakumeak)

Azterlan honetan parte hartu duten gizon batzuek berretsi egin dute ikuspegi hori:

"Denok genuen oso jatorrak eta oso berdinak izateko borondatea, baina noiznahi nabarmentzen ziren gure jarrera matxistak... Alegia, beharrezkoa zela mugimendu feministak ikuspegi desberdin bat erakutsi ziezagula eta geneuzkan jarrera askorengatik lotsa pasarazi ziezagula" (F.A.)

"**Parekidetasunarena ez genuen planteatzen** ez arazo, ez konponbide, ez ezer bezala. Bakoitza joan eta egon egiten zen" (J.A.)

Eta horrek guztiak, hain zuzen ere, hurrengo atalera garamatza.

Emakume maskulinizatuak, izenik gabekoak eta espaziorik hartu ez zutenak

Elkarrizketatutako emakume batzuek azaldu dutenez, eredu parte-hartzailea (orokorrean, ez bakegintzako bakarrik) gizonen arabera forma, tonu, behar eta perspektiben arabera eginga zegoen. Horren ondorioz, entzunak izango baziren edo ardurak gehiago hartuko bazituzten, **emakume askok beren moldeak eta diskurtsoak maskulinizatu egin behar izan zituzten:**

“**Eredua gizonetzkoena zen, haiei begira.** Eta bai, gizonetzkoen iritziek gehiago balio zuten. Haiek ziurragoak, gu beti inseguruak” (E.I.)

“Garai horretan **emakumeek oso maskulinizatuak geunden**, eta, orduan, zailtasuna berez ez, baina oso ohituta geunden adieraztera eta moldatzera oso modu zehatz batzuetara. [...] Nik ezagutu ditudan emakumeak nahiko aktiboak izan dira eta nahiko maskulinizatuak.

Gizonen eskemetan sartuz gero, aurrera” (M.H.)

“Garai hartan zeuden emakumeek nolabaiteko lotura zeukaten eredugarriak eta erreferenteak ziren gizonetzkoekin. **Hor bazegoen ezarrita nolabaiteko kanona**” (M.H.)

Bestalde, elkarrizketatuek gogoan dituzte **nabarmendu ziren zenbait emakume**, baina **ez dira haien izenekin akordatzen** (“txikitxo”, “halako tokitan zegoen hura...”). Dena dela, nabarmendu ziren emakume haien ezaugarriez gain haien izenak gogoratzeko zortea duten kasuetan, lidergo informalak izaten ziren:

“Gehiago ziren gizonak lan munduan eta politikan; seguruagoak izan dira. Nik ezagutu ditut emakume oso onak, oso borrokariak, baina **haien izenak ez dira entzuten direnak. Bigarren mailakoak izan dira**” (E.I.)

“**Emakumeen karisma ez zen agerikoa.** Hemen bada emakume bat, nire maistra izan zena, bere gogoetetan karisma zuena, ideiak argi zituena, baina ez zen jendaurrean ikusten. **Guk bai, guk sentitzen genuen**” (Elkarriko Emakumeak)

Inguru hurbilenean bai, emakume horiek gehiago nabarmentzen ziren, baina jendaurrean ez; emakumeen artean aitortutako lidergoak ziren, baina gainerakoen begietara ikusezinak. “Gainera”, dio elkarrizketatu batek, “gizonei ordaindu egiten zitzairen beren postuetan egoteagatik, guri ez”. (Elkarriko Emakumeak)

Jendaurrean hitz egiteko beldurra da elkarrizketatutako emakume gehienek ezaugarri komun bat, behar bezain ona den zerbait ez esatearena, profil baxua mantentzea. Diotenez, denborarekin hobetzen omen den zerbait den arren, **autozentsura eta nork bere burua gutxiestea oztopo izan dira erabateko parte-hartze baterako:**

“**Ziur ez egotea esatera zoazen hori interesgarria ote den.** Zuk baino gehiago dakien jendea badago, beste batzuek hobeki esango dute...” (M.O.)

“Barkatu, nik pentsatzen dut...’. **Beti gutxiesten dugu gure hitza**” (Elkarriko Emakumeak)

“**Guk gerok egiten genuen atzera**” (M.O.)

Baina hori ez zen eragozpen bakarra: “Protagonismo gehiagorik ere ez genuen hartzen **emakumeek etxean lan gehiago geneuzkalako:** seme-alabak, etxea...” (Elkarriko Emakumeak).

Zaintzaren eta aktibismoaren bateraezintasuna

Seme-alabak izan zituzten emakume gehienak desagertu egin ziren, nahiz eta, zaintza lana arintzen zitzaizenean, itzuli egiten ziren berriro. Beste batzuek, aldiz, guztia uztartu nahi izaten zutenek, ezin izaten zuten saihestu **kulpa sentimentua** edo gauza guztietara ongi ezin iritsiaren sentipena:

“Gero bazen beste kontu bat ere: militantzia nola egiten zen: ordutegiak... **Oso neketsua zen**. Askotan ezin nuen: ‘nola egon naiz hainbeste denbora etxetik kanpo semeak etxean baditut?’.

Inork ez zidan hori esaten, baina nik neure buruari esaten nion” (E.I.)

“Emakumeak desagertu egiten ziren ama bihurtzean. Umeak handitzen zirenean hartzen zuten parte” (Elkarriko Emakumeak)

“Bilerak arratsaldez izaten ziren, gehienek joateko modua zutenean. Izan ziren seme-alabak izandakoan aldendu ziren emakumeak, eta, gero, itzuli egin zirenak” (F.A.)

“Beren bizitzekin itota zebiltzanek ez zuten militatzen” (Elkarriko Emakumeak)

Zenbait elkarrizketatan, emakume batzuk identifikatu dira, aktibismoa eta familiaren zaintza bateratzeko asmoz beren etxea eskaintzen zutenak kideekin bilerak egiteko.

Errealitate horren berri ere jasotzen du elkarrizketatutako gizonen ahotsak, amatasunak haien kideen eta bikotekideen aktibismoan izandako eragina aipatzen dutenean. Era berean, batzuetan seme-alabek ere hartzen zuten parte jardueretan: “Umea izan ondoren, agian ni nintzen gehiagotan etortzen zena, baina alaba koskortu zenean, ekarri egiten nuen (...) Nik alaba kontzentrazioetara ekartzen nuen, noski, baldin eta banekien lasaiak izango zirela” (J.A).

Ez da harrizkoa, beraz, emakumeen lidergoari buruz edo emakumeek gune haietan egon nahi ote zuten edo ez galdetzen zaienean, haien erantzuna hau izatea: “Seguru nahi genuela, baina ez ziguten aukerarik eman” (E.I)

Bakearen aldeko aktibismoa ahalduntze-prozesua ere izan zen

Ukaezinak dira aurretiaz aipatutako zailtasun horiek guztiak. Hala eta guztiz ere, emakumeek bake prozesuetan izandako parte-hartzea, gizartean eragin positibo bat izateaz gain, haietariko askorentzat, **beren balioaz ohartzeko balio izan duen bizipena izan da.**

“50ak bete nituenean, ispiluaren aurrean jarri, eta zera galdetu nion neure buruari: **Non ibili zara orain arte, maitea?**

Alaba, emazte, ... Eta zu? Handik aurrera, eta seme-alabak 'bideratuak' zeudela ordurako, nire unea zela erabaki nuen, eta aktiboki parte hartzen hasi nintzen. Niretzat, errealizazio prozesu pertsonalaren parte izan zen" (Elkarriko Emakumeak)
"Gu baino helduagoak ziren emakumeak bazeuden, eta militantziak asko eman zien. **Haietariko batzuk bakearen aldeko mugimenduei esker atera ziren etxetik**, eta, lehen aldiz, militantzia aktiboago bat aurkitu zuten" (Elkarriko Emakumeak)
"Nire aktibista lanean **aintzat hartua sentitzen nintzen**" (Elkarriko Emakumeak)

Etorkizuna gogoan

Etorkizunari begira, emakume batzuek argi dute: **oraindik bide luzea dago egiteko egiazko bake batean bizi gaitezen.**

"Batzuentzat bakea izan da ETAk bere jarduera armatua uztea. Bale, ez dago borroka armaturik, baina ez dago bakerik. Ez da gatazka desagertu. Zerbait egin behar da. [...] **Definitu beharko da zer den bakea. Zer bake nahi dugu?** Oso lasai egon gaitezke, baina ez gara zoriontsu" (E.I.)
"Gatazka hura bukatu da, baina baketik oso urruti gaude. Polarizazio handia dago, tentsioa... hitz egitea lehen baino zailagoa da, beharbada" (M.O.)
"**Elkar ulertu behar dugu**, ez dago beste modurik. Besteari egiten diodan kaltea neure buruari egiten diot; norbere buruaren eta ingurukoen zaintza beharrezkoa da". (M.H.)

Beraz, bakearen aldeko aktibismoa beharrezkoa da oraindik ere, nahiz eta badirudien **bakearen aldeko mugimenduak formaz aldatzen ari direla:**

"Elkarrin sartu ginenean, gatazka oso gogor zebilen. Orduan erraza zen bakezaletasunean kokatzea. Orain dena oso sotila da. Bakearen aldeko aktibista moduan, **zein taldetan sartuko zara?**" (Elkarriko Emakumeak)
"Orain **feminismoa ikusten dut, ingurumenaren gaia...** ez nuke jakingo non sartu" (Elkarriko Emakumeak)
"Nire ondorioa zera da, **mundua aldatzeko bidea giza eskubideen talaiatik egin behar dela**" (F.A.)
"**Bakearen orde z giza eskubideei buruz hitz egiten baduzu, askoz gehiago zabaltzen duzu abanikoa**, eta, finean, giza eskubideei buruz ari gara, hori bai, oso testuinguru oso zehatzean". (A.E.)

Aholkuak bakearen aldeko emakumezko aktibista gazte batentzat

Edonola ere, eta badirudien arren aktibismoaren moldeek eta bakearen aldeko defentsak forma eta bide berriak hartzen dituztela, elkarrizketatutako emakume bakezaleek hitz batzuk zuzendu dizkiete beren ekintzekin bakegintzari ekarpena egin nahi dieten gazteei:

“Segi zure senari eta, benetan zerbaitetan sinesten baduzu, egin aurrera” (A.E.)

“Pazientzia handia, gogo eta motibazio handia beharko duzu. Lasaitasuna. Gehienbat pentsatzea iritzi asko daudela oso onak eta ez dela iritzi bat mantendu behar mantentzearren.

Malgutasuna landu eta aurreiritziak kendu” (E.I.)

“Jabetu zaitez zure baitan eta zure ingurune hurbilenean dituzun gerra nagusiez. Bila ezazu leku egoki bat bidea beste batzuekin egiteko” (M.I.)

“Nik egin ez nuen zerbait egiteko esango nizuke: gaiari buruz gehiago irakurri. **Ez joan ero-eroan: irakurri eta entzun”** (M.O.)

“Borondatea eta desioa behar dituzu” (Elkarriko Emakumeak)

“Bakea egiteko, **besteak maitatu beha dituzu”** (Elkarriko Emakumeak)

“Inportanteena **jarrera bat lantzea** da. Batzen gaituena bilatu, eta barne bakea eta errespetua zaindu”. (Elkarriko Emakumeak)

“Zure iritzia entzungo den tokian egon, horizontala izan dadila” (Elkarriko Emakumeak)

“Ikasi ezazu gauzei goxoki aurre egiten. Entzun ezazu **erasotua sentitu gabe, eta beste nonbaitetik erantzungo duzu”**

(Elkarriko Emakumeak)

ONDORIOAK

Nafarroako bakearen aldeko mugimendua, hainbat eragilek eta erakundek osatua, ezinbestekoa izan zen motibazio politikoko indarkeriarekin, terrorismoarekin eta nagusi zen polarizazio eta haserre giroarekin kezkatuta zeuden pertsonen ahotsa ematerako orduan. *Ahots horiei esker – norbanakoen ahotsak edo taldeen bidez antolatuak–, bestelako egoera batean gaude: gaur egun giza eskubideen errespetua funtsezkoa da motibazio politikoko gatazkak kudeatzeko.* Hori da azterlan honetako ondorio nagusietako bat, agerikoena agian. Jarraian, bakegintzan jardun zuten emakumeen errealitatearen argazkia osatzen duten beste hausnarketa batzuk aurkeztuko ditugu:

Emakumeak mugimendu horren zati garrantzitsua eta funtsezkoa izan dira; baina ba al dakite hori beraiek?

Elkarrizketek eta talde-eztabaidek atzera begiratzeko, gertatuari zentzua emateko, eta bizipen horiek orainera lotzeko balio izan duten gune izan dira, bai maila pertsonalean, bai sozialean. Hau da, egin zuten lan garrantzitsuaz jabetzeko balio izan duen prozesua izan da. Zentzu horretan, autoerrekonoizimendu horri dagokionez, bilakaera bat ikusi da elkarrizketa egite aldera haiekin harreman jarri ginenetik elkarrizketa bukatu zen arte. Haiekin harremanetan jartzean, sorpresa eta harridura izaten ziren ohiko erreakzioak, haiek ez zutelakoan ekarpen interesgarriak egiterik (“ez daukat kontatzeko askorik, baina tira...”, “seguru beste norbaitek gauza askoz gehiago kontatuko dizkizula”, etab.). Gero, elkarrizketetan zehar, ikusten zen, hain zuzen ere, kontatzeko eta emateko asko zutela, eta, horretaz jabetzeak *beren historia pertsonala eta soziala aintzat hartzea* ekarri ziela, gerora ikusiko dugun bezala.

Beren burua bilbe historikoan eta bakearen genealogian aintzatestearen garrantzia

Bakegintza gauza konplexua da, eragile askokoa eta diziplina anitz hartzen dituena. Mugimendu, pertsona, erakunde, kasualitate eta kausalitate multzo bat da, agertoki berriak sortzen dituena eta etengabeko mugimenduan dagoena. Fenomeno historiko baten garapena ulertu beharri erantzuteko, hura sinplifikatzeko joera dago, gertaerak, kausa-ondorioak eta funtsezko pertsonak bilatuz (gizonak eskuarki), eta, askotan, sinplifikazio horretan, ñabardura garrantzitsuak galtzen dira bidean; bakea defendatzerako orduan pertsona anonimoez izan duten eginkizunarena, adibidez. Pertsona anonimo horietako asko emakumeak izan dira, eta, azterlanean ikusi dugun moduan, haien eginkizuna funtsezkoa izan da bakearen eraikuntzan. Izandako hizketaldietan, *iraganari begiratu eta iragan hori orainarekin lotzeak beren burua bakegintzaren historiaren baitan kokatzea ekarri die parte hartzaileei*. Beharrezkoa da, beraz, ariketa

hori zabaltzea, merezi duten tokia ematea goi-kargudunak edo aurpegi ezagunak izan gabe nafar gizartea bakearen aldeko defentsaren eta giza eskubideen bidean jarri duten egintzetan eta mugimendu historikoetan parte hartu duten ehunka emakume horiei.

Genero-ikuspegiaren garapena

Bakearen aldeko mugimenduetan izandako parte-hartzean emakume-rolak nolako eragina izan duen aztertzeko proposatu diegunean, harridura izan da erreakzioetako bat, baita desadostasun txiki bat ere, hasieran begiradarekin adierazia. Izan ere, azken 30 urteotan, genero-berdintasuna gutxiengoaren begirada izatetik gizarte-azterketen erdigunetik gertuago egotera igaro da. Azterlanean parte hartutako askok ez zuten sekula jarri generoaren galbahirik iraganari begiratzerakoan, **eta hizketaldia baliagarria izan zaie parte hartu zuten mugimenduetan emakume izateak zenbateraino baldintzatu zituen hausnartzeko eta kontzientzia handiagoa izateko**. Horrek, emakume batzuegan, nolabaiteko haserrea edo frustrazioa piztu du, beren burua desberdintasunaren gaian galtzaileen aldean ikusi baitute. Beste batzuegan, aldiz, etsipen pitin bat eragin du, edo halako ardura pertsonal bat, ohartu baitira aukera izan zutenean ez zutela aurrerapausorik eman.

Bakea genero-roletatik askatu beharra

Bakearen aldeko mugimenduek gizarteak dituen joera berberak dituzte; beraz, gizartean dauden desparekotasun berak errepikatzen dira haietan. Desparekotasun horiek gainditzeko, garrantzitsua da berdintasunaren begirada fintzea, eta nahi dugun mundua eraikiko duen genero-kontzientzia batez horniturik jokatzen duten mugimenduak sortzea.

Ikusi dugun bezala, bakegintza eremu femeninoa eta feminizatua da (balio femeninoei lotua: enpatia, zaintza, arlo pribatu eta erlazionala...). Kontrara, aktibismo politikoa maskulinoa da, eta maskulinizatua dago (balio maskulinoei lotua: analitikoak, indibiduala, publikoa...). Bi mundu horien elkarketatik, bakoitzetik onena eta okerrera hartu zuten mugimenduak sortu ziren:

Okerrena: desparekotasuna. Emakumeek oinarrian parte-hartze handia izatea baina lider gehienak gizonak izatea, eta, ondorioz, emakumeak ikusezin bihurtzea, gizonen proiektio publiko bereganatzea, etab.

Onena: bakegintzaren politizazioa. Eremu pribatutik eta etika indibidualetik edo espiritualetik ateratzea eta afera publiko bihurtzea, bakea generoa gainditzeko duen balio unibertsal gisa gizarteratzea.

Konpromisoa eta sineste sendoa ezkutua dira beldurrari aurre egiteko, eta, aldi berean, mugiarazi dituen motor

Atzera begiratzeko ariketa honetan, emakume asko harritu egin dira mugimendu haietan parte hartzean egin zuten guztiaz jabetzean edo ekintza edo kanpaina publikoak egiteko izan zuten ausardiaz konturatzean —muturreko polarizazio-testuinguru hartan sor zitezkeen erreakzioen ia beldurrik izan gabe—. *Defendatzen zutenari buruzko bete-beteko sineste sendoak eta beren mugimenduen babesak aukera eman die beren lana lasaitasunez eta ziurtasunez egiteko.* Diotenez, gaur oso zailak liratekeen lasaitasunez eta ziurtasunez aritu ziren.

“Hain zuzena eta justua zen [defendatzen genuen] diskurtsoa, eta hain sinetsirik genuen, ezen berdin zen zer esaten ziguten”

(Elkarriko Emakumeak)

Bakearen aldeko mugimenduetan parte hartzea, espazio publikoan subjektu politiko gisa garatzeko bide

Emakume askorentzat (ez guztientzat; batez ere gaur egun helduagoak direnentzat), beren ama-ardurak bazter utzita eremu pribatutik atera eta bakearen aldeko mugimendu batean aktiboki parte hartzea norik bere burua aintzat hartzeko prozesu bat izan zen, pertsona gisara zuten balioaren pertzepzioa areagotzen zuena. Zentzu horretan, garapen pertsonalean eta politikoan lagundu zieten guneak izan ziren, eta bidea ireki zien politikan eta gizarte-eraldaketan parte hartzen jarraitzeko. *Emakumeek mugimenduak aldatu zituzten, eta mugimenduek emakumeak.*

Gaur egungo errealitatea zaila eta nahasia da, baina etorkizun hobea eraikitzearen aldeko konpromisoa egiten dute

Elkarrizketatuko emakumeek adierazi dute egungo egoera ez dela bake-egoera bat. Indarkeriarik ezak ez omen ditu motibazio politikoko indarkeriaren zenbait agerpen edo ondorio desagerrarazi. *Aitortzen dute bakearen aldeko mugimenduek bilakaera bat izan dutela, eta pertsona gazteen aldarrikapenak eta aktibismoa dibertsifikatu egin direla:* feminismoa, antirrazismoa, ingurumena, giza eskubideak... Hala ere, gaur egun garai bateko bakearen aldeko mugimendurik ez dagoen arren (testuinguruaren bilakaeraren ondorioz), sinetsiak daude mugimendu horiek guztiek gizarte bakezalea eraikitzen lagundu dutela. Gainera, , bestelako mugimenduetan parte hartzen ari dira, emakume horietariko asko gaur egun aktibistak baitira gizarte eta kultura esparru askotan.

BIBLIOGRAFIA

LERNER, GERDA (1986). *La Creación del Patriarcado*. Katakarak liburuak (primera edición, 2017). Iruñea-Pamplona

CAVERO MARTÍNEZ, GUADALUPE (2021). *Las mujeres en los conflictos y postconflictos armados: la resolución 1325 de la ONU y su vigencia hoy*. (17 orr.). Eskuragarri hemen: <https://www.inmujeres.gob.es/publicacioneselectronicas/documentacion/documentos/DE1865.pdf>

NAZIO BATUEN SEGURTASUN KONTSEILUA (2021). *Informe del Secretario General sobre las mujeres y la paz y la seguridad. Women's Participation in Peace Processes*.

ELKARRI (1992). *Prentsa oharra: elkarri, un nuevo movimiento social por el diálogo y el acuerdo*. (Esteka).

ELKARRI (1999). *El proceso de Paz en Navarra*.

ELKARRI (n.d.). *Las siete etapas de la historia de Elkarri*.

ELKARRI. (n.d.). *Una cronología de 13 años de actividad*. (Esteka)

ELKARRI (n.d.). *Síntesis de la historia de Elkarri en una frase, un párrafo y cuatro trazos*. (Esteka)

ELKARRI (n.d.) *Principales iniciativas de colaboración con Gesto por la Paz*. (Link)

ESTEBAN, J.M. (1980ko abuztuaren 25a). *Navarra: La Diputación y los partidos llaman a la movilización antiterrorista*. Diario 16. (Esteka)

FUNES, M^a JESÚS. (1996). *La salida del silencio: Movilizaciones por la paz en Euskadi 1986-1998*. Akal.

BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA (2013). *Enhorabuena*.

NAFARROAKO GOBERNUA. (2020). *El terrorismo desconocido: Atentados terroristas de extrema derecha en Navarra (1975-1985)*. (Esteka);

NAFARROAKO GOBERNUA. (2019). *Proyecto de investigación de la tortura y malos tratos en la Comunidad Foral de Navarra entre 1960-1978*. (Esteka)

GUILLENEA, J. (1989ko azaroaren 25a). *Gesto por la Paz y Asociación por la Paz se unen para crear una plataforma única contra la violencia*. El Correo. (Esteka)

NAFARROAKO MEMORIAREN INSTITUTUA. (2020). *Relatos de plomo: El documental*. (Esteka);

LEDERACH, J.P.: *La imaginación moral El arte y el alma de la construcción de la paz*. Gernika Gogoratuz, 2007

LOKARRI (2015). *Hilando la paz: La historia de Lokarri*. (Esteka)

MÄKISALO, NETTA (2021). *Experiencias de las mujeres vascas como constructoras de paz en el conflicto vasco: un análisis feminista de la división de género en el proceso de paz*. Tesis de Máster.

MARTÍNEZ, E. (2012ko abenduaren 14a). *Elkarri: La semilla del diálogo y la reconciliación*. Noticias de Navarra. (Esteka)

MENDIA AZKUE, IRANTZU (2009). *Emakumeek bakearen alde egiten duten aktibismoari buruzko oharra*. Hegoa. Eskuragarri hemen: <https://ojs.ehu.eus/index.php/hegoa/article/download/10603/9843>

MORENO, I. (2015). *Movilizaciones pacifistas en el País Vasco: Los inicios de Gesto por la Paz*. Revista de Paz y Conflictos, 8. liburukia, 2, 227.-242. or. (Esteka)

ONU MUJERES. (diciembre de 2023) *Hechos y cifras: mujeres, paz y seguridad* https://www.unwomen.org/es/what-we-do/peace-and-security/facts-and-figures#_Toc85731439

ONU MUJERES. (2023ko abendua) *Mujeres, paz y seguridad* <https://www.unwomen.org/es/what-we-do/peace-and-security>

VILLELLAS ARIÑO, MARÍA. *Hallar nuevas palabras, crear nuevos métodos. La participación de las mujeres en los procesos de paz*. Artículo disponible en: https://www.academia.edu/1482477/HALLAR_NUEVAS_PALABRAS_

CREAR_NUEVOS_M%C3%89TODOS_LA_PARTICIPACI%C3%93N_DE_LAS_MUJERES_EN_LOS_PROCESOS_DE_PAZ

ZABALA GONZÁLEZ, BEGOÑA (2008). *Movimiento de Mujeres, Mujeres en Movimiento*. Txalaparta, Pamplona.



Emakume bakegileak

Emakumeek
bakea
egiten dute

baketik